

Hizkuntza eta Ingurunearen Ezagutza batera lantzeko programazioa murgiltze ereduan

(The programme to develop together the knowledge
of the language and environment in the immersion model)

Sainz Osinaga, Matilde

Irakasle eskola - Escuela Univ. de Profesorado - 20540 Eskoriatza

Ettxabe, Marisol

San Fr Xabier Ikastola - Oñati Lizenziatua, 8 - 20500 Arrasate

Etxeberria, Lurdes

Kurtzeberri eskola - Plaza de España - 20550 Aretxabaleta

BIBLID [1137-4446 (1997), 9; 75-85]

Artikulu honetan murgiltze eredu goiztiarren metodologia aurkezten da. Metodologia hau lau zutaberen gainean eraikitzen da: testua da Matea eta testuak anitzak dira; hizkuntza eta ingurunearen ezagutza era bateratuan lantzen dira; proiektuen bidez antolatzen da irakaskuntza; eta, azkenik, irakaskuntza sistematizatu egiten da. Metodologia honen deskripzioaz gain, irakurleari, metodologia hau aurrera eramateko erabiltzen dugun fresnaren berri ematen zaio, hots, sekuentzia didaktikoarena. Bukatzeko, sekuentzia didaktiko baten adibidea ematen zaio.

Giltz-Hitzak: Testua. Testu tipologia. Proiektua. Esanguratasuna. Sistematizatu. Murgiltze eredu. Sekuentzia didaktikoa. Aurrezagupenak.

En el presente artículo se expone la metodología para un programa de inmersión temprana. Dicha metodología se basa en cuatro principios: el texto es la unidad y los textos son diferentes; se trabaja la lengua y el área de conocimiento del medio de forma conjunta; el aprendizaje se organiza por proyectos; y por último, se trabaja de forma sistemática. Además de la exposición de dicha metodología el lector encontrará la descripción del instrumento didáctico que utilizamos para llevar a cabo dicha metodología, es decir; de la secuencia didáctica. Para terminar se describe el ejemplo de una secuencia didáctica.

Palabras Clave: Texto. Tipología textual proyecto. Significatividad. Sistematizar. Programa de inmersión. Secuencia didáctica. Conocimientos previos.

Dans le présent article, on expose la méthodologie pour un programme d'immersion précoce. Cette méthodologie se fonde sur quatre principes: le texte est l'unité et les textes sont différents; on travaille la langue et le domaine de connaissance du milieu de façon conjointe; l'apprentissage s'organise par projets; et, enfin, on travaille de manière systématique. En outre de l'exposition de cette méthodologie, le lecteur trouvera la description de l'instrument didactique que nous utilisons pour venir à bout de cette méthodologie, c'est-à-dire, de la séquence didactique. Pour finir on lui donne l'exemple d'une séquence didactique.

Mots Clés: Texte. Typologie textuelle. Projet. Significativité. Systématiser. Programme d'immersion. Séquence didactique. Connaissances préalables.

Metodologia hau garatu deneko markoa. Deba Garaiko murgiltze ereduaren proiektua.

Aurkeztuko dugun proiektua Deba Garaian 1989an hasitako mintegietan garatu da. Aipatu mintegietan bailarako 6 eskola eta Irakasle Eskolako Hizkuntzaren Didaktika departamentua dira partaide. Hona hemen labur esanda mintegi hauen egitekoak:

- H2ren irakaskuntzarako metodologia garatu
- Gelarako materialak sortu
- Murgiltze ereduko irakaslegoaren formazioa zaindu
- Eskolan ikasleak lantzen dituen hizkuntza guztientzako marko (epistemologikoa eta metodologikoa) bateratua aurkitu

Artikulu honek bi atal ditu: lehendabizikoan marko metodologikoaz arituko gara batik-bat, eta, bigarrenean, DLHn aplikatutako Sekuentzia Didaktiko bat azaltzen dugu.

Murgiltze ereduko mintegietan garatutako metodologiaren ezaugarriak

Urte hauetan garatutako metodologia lau zutabe nagusitan oinarritzen da. Hauetariko zutabe bakoitzari galdera forma eman diogu eta galdera hauei erantzuten saiatuko gara.

- Zergatik testuak eta testu desberdinak?
- Zergatik hizkuntza eta ingurunearen ezagutza batera landu?
- Zergatik antolatu irakaskuntza proiektuen bidez?
- Zergatik sistematizatu irakaskuntza?

1. ZERGATIK TESTUAK ETA TESTU-MOTA DESBERDINAK?

Hizkuntzaz ari garenean komunikazioaz ari gara. Beraz, hizkuntzaren erabilera ahalbidetzen eta bultzatzen duten ekintza komunikatibo errealak antolatzea da murgiltze ereduko baldintza garrantzitsu bat. Hizkuntz ekintzaz ari garenean, helburua duen giza jokabide egituratuaz ari gara. Helburu komunikatiboak amaigabeak direnez, kontaezinak dira hizkuntz ekintzak (lagun bati mendian jarraitu behar duen bidea adierazi, muntatutako tresna baten berri azaldu ikaskideei,...).

Honez gain, esan, hizkuntz ekintza bakoitza espazio fisiko komunikatibo jakin batean ematen dela: norbaitek (igorleak) hitz egin edo idazten du, norbaitentzat (hartzailea), toki eta denbora jakin batean eta, gainera, hau testuinguru sozial desberdinetan egiten da: eskolan, familian, komunikabideetan eta abar, eta, honek mugatzen ditu igorlearen eta hartzailearen rolak (Bronckart eta beste, 1985).

Honela, bada, hiztunak diskurtso edo testu desberdinak ekoizten ditu eremu sozial desberdinetan eta giza iharduera anitzetan ari dela.

Ekoizten ditugun testuek ez dituzte ezaugarri berak. Esan berri dugunez, hizkuntza komunikazio-egoerara egokitzen da, kontestu desberdinetara, alegia.

Hona hemen Lehen Hezkuntzan lantzen ditugun testu-motak aukeratzeko kontuan izan ditugun irizpideak:

- ikasleek zer dakiten
 - idatzi sozialen aniztasuna (Bronckart, 1992)
 - eremu sozial desberdinak: hizkuntza pertsonen arteko harremanetan, hizkuntza literaturan, hizkuntza irakaskuntzan eta hizkuntza giza komunikabideetan (OCD,1992)
- testu sozial errepresentagarria izatea, hau da, gure kulturen gehien erabiltzen direnak (Bronckart, 1992)
- testu orotan agertzen diren oztipo teknikoak gantitzeko aukera ematen dutenak izatea (testu antolaketa, kohesio estrategiak,...) (Bronckart, 1992)
 - Ingurunearen ezagutzan lantzen ari den gaiarekin ongi ezkontzen den diskurtso mota izatea (Euskal Herria gaia hartu eta gida bat burutzea).

2. ZERGATIK HIZKUNTZA ETA INGURUNEAREN EZAGUTZA BATERA LANDU?

Lehen Hezkuntzako ikasleen interesak kontuan izanik, euskara curriculumeko beste arlo batekin batera programatzen dugu: ingurunearen ezagutzarekin, hain zuzen (Snow, Met, Genesse,1989). J. Arnau-k (1994) aipatzen duenez “Lehen Hezkuntzako haurrak mundua ezagutzeko irrikitan daude, beraz maila hauetan hizkuntza lanerako eta komunikaziorako tresna bat gehiago izan daiteke.” Beraz, ingurunearen ezagutzak esanguratasuna ematen dio hizkuntzari, era honetara komunikazioa eta kognizioa lotzen ditugularik.

Horretara, ingurunearen ezagutza arloaren curriculumak eta hizkuntzarena izango dira H2aren lorpena ardaztuko dutenak maila hauetan. Hau dela eta, ikasleek aipatu bi arloetarako amankomuna den azken-xede (proiektu) bat burutu beharko dute sekuentzia didaktikoaren bukaeran.

Ikusten denez, ikasleek hizkuntzarekin burutu behar dituzten iharduerak (bai ingurunearen ezagutzazkoak, bai hizkuntzaren arlokoak ere) inplikazio kognitibo handia eskatzen dute, eta gainera, ez daude haur txikiak iharduerak bezala “orain eta hemen”ari lotuak; aitzitik, ikasleak bere azken testua prestatu bitartean komunikazio-egoera behin eta berririo irudikatu beharko du (igorlea: bera, zientzilaria; hartzailea eta honek gaiak izango duen jakinduria; helburua: bere tresnaren muntaiaz eta erabileraz informazioa eman).

Dena den, eta azken-xedea prestatu bitarteko bide luzean “orain eta hemen”ari lotutako zenbait iharduera komunikatibori ere aurre egin beharko dio ikasleak (behartutakoak hitz egin, ikasleen arteko kontrajarketa, eztabaida, jasotako informazioaren ebaluaketa,...).

Ikasleak azken-xedearen testua arrakastaz ekoiztu bitartean, hainbat kontzeptu eta estrategia berri ikasiko ditu, guzti hauek era sistematikoan landuko dituelarik aprendizaiaren sekuentzian zehar. Hauetarikoz batzuk “aprendizai zientifikoak” izango dira eta beste batzuk hizkuntzari dagozkionak. Hizkuntzari buruzkoen artean, halere, badira hainbat eratakoak: “ezinbesteko aprendizai linguistikokoak”, gelan egingo dituzten iharduera zientifikoak egin ahal izateko ikasleak menperatu beharko dituenak, eta, “aprendizai linguistiko konpatibleak”, hauek zientziari buruzko iharduerak betetzeko ezinbestekoak ez badira ere, egokitasun osoz landu daitezkeenak ihardueren alderdi batzuekin erlazionatuta baitaude (Snow, Met, Genesse, 1989).

Laburbilduz, esan daiteke Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako programa ingurunearen ezagutzan eta hizkuntzan ardazten dela. Bi arlo hauen arteko artikulazioa ziurtatzeko arreta handiz aukeratzen da gai bakoitzarekin landuko den testu-mota,

Lehen aipatu dugun eran ingurunearen ezagutzazko gaia dagokion curriculumetik aukatzen da, eta era berean, sekuentziaren bukaeran ikasleak ulertu eta ekoiztu behar duen testu-mota. Honela, bada, ingurunearen ezagutzazko gaia, ikasleak ekoiztuko duen testuaren aipagai bihurtzen da.

3. ZERGATIK PROIEKTUEN BIDEZ?

Gaur egun badakigu aprendiaia eman dadin ikasleak zer egiten duen eta zertarako egiten duen jakin behar duela. Proiektuak aipatu informazioak ematen dizkie ikasleei, batetik, sekuentziaren bukaeran zer egin behar duten zehazten dielako, eta, bestetik, prozesuan zehar egingo dutena zehazten dielako. Prozesu hau sekuenziatzeko erabiltzen dugun tresna sekuentzia didaktikoa da.

Ikasleak sekuentziaren (ikastunitatearen) bukaeran, hizkuntza dela medio, burutu behar duen iharduera komunikatiboari deritzogu azken-xedea.

Lehen Hezkuntzako azken-xedea prozesuaren ardatz bihurtzen da, bai irakasleentzat, eta baita ikasleentzat ere. Sekuentzia hasten den egunetik ezagutzen du ikasleak ikastunitatearen azken-xedea, beraz bere espektatibak, asmoak, iharduerak eta aprendizaia azken xedea ahalik eta ondoen egitera bideratuko ditu.

Aipatzekoa da azken xedek ikasleen aprendizaiaren eragina:

Aprendizai esanguratsuen baldintza bat betetzen laguntzen du: esanguratasun logiko-arena, hau da, ekintza esanahitsu batean kokatzen dira haurrak. Honez gain, edukien arteko koherentzia ziurtatzen da.

Esanguratsua den egoera komunikatiboan aurrean jartzen du ikaslea eta ikastunitatean zehar lantzen diren edukiak zentzudun (helburudun) bihurtzen ditu (hizkuntza hartzaileari egokitu, testuaren antolaketa zaindu, lexikoaren zahaztasunean erreparatu,...).

Adibideen laguntzaz adieraziko ditugu maila hauetan azken-xedek dituzten ezaugarriak eta berauen sekuentziak.

Har dezagun LMHko 3. mailarako animalien sekuentzia. Ikasleak ikastunitate honen bukaeran zenbait animalien deskribapen zientifikoak egingo ditu. Honek zera eskatzen du:

- Ikasleak sekuentziaren hasieran bere baitan ondo irudikatzea testu-informatiboa eta honen kontestualizazioa. Hau dela eta, ikasleak berak aukeratutako animaliei dagokienez, pertsona aditu modura ikusiko du bere burua.
- Gai honek abstrakzio maila handia eskatzen du. Halaber, implikazio kognitibo handia. Egingo dituen iharduerak (ulertzeko eta ekoizteko) anitzak eta ugariak dira, besteak beste, bibliografia egokia aurkitu, liburuak kontsultatu, behar duen informazioa identifikatu eta gorde, ulermen estrategiak martxan jarri, testua antolatu, antolatzaile egokiak erabili,...
- Sekuentzia hau hilebete t'erdiko lana denez, epe luzera begira burutu beharko ditu lanok.
- Azken-xedea gauzatzeko ibilbidean lau trebetasunak lantzen dira (irakurmena, idazmena, ahozkoa eta idatzizkoa). Aipatu adibidean idatzikoari ematen zaio nagusitasuna ekoiztu behar duten testua idatzizkoa baita. Beste batzuetan, aldiz, energia gaian adibidez, ahozkoari ematen zaio nagusitasuna, ekoiztu behar duten testua ahozkoa baita.

4. ZERGATIK SISTEMATIZATU IRAKASKUNTZA?

Aurreko puntuetan esan dugu ikaslea testu-mota desberdinen aurrean sentsibilizatu behar dugula. Eta berez etorriko den aprendizaia ez denez, irakasleak bitartekoak jarri beharko ditu aprendizai hau eman dadin. Baina zer da sistematizatu behar dena? Hona hemen kontuan izan ditugun bi alderdiak:

- Aniztasun testuala sistematizatu. Irakasleek testu-aniztasunarekin jabetuz joango dira: ipuin bat identifikatu, azalpen bat, iritzi bat,...

Aprendizai hau txikitatik bultzatzen dugu, aurrekolatik. Honek esan nahi du testu-mota desberdinak lantzen ditugula curriculumean zehar, eta, batzuetan, aurretik landutako testu-mota berrartzen dugula lehenago landutakoa sakontzeko edota testu horren alderdi berriak lantzeko

- Eskuhartze maila pedagogiko desberdinak.

º Kontestua: maila honetan irakasleak ekoizteko egoera irudikatuko du bere baitan: nori idatzi duen, zertarako, noiz, zeintzuk diren idazlearen eta hartzailearen arteko erlazioak. Lan honi kontestualizazio lana deituko diogu. Irakasleak zerbait irakurri edo ekoiztu behar duenean kontuan izango ditugun ezaugarriak.

º Aipagaia: zer esaten da testuan? Gure kasuan aipagaia ingurunearen ezagutzazko gaia da. Gai hau sistematikoki lantzen da sekuentzian zehar.

º Antolaketa maila: nola dago antolatuta testua? Nola hasi eta bukatzen da? Atal honetan testu-mota bakoitzaren planifikazioaz ari gara. Kontuan izango da modu desberdinean egiten dela testu-mota bakoitzean.

º Testuratzeko-maila: zeintzuk dira testu-antolatzaileak? Eta aditz-denborak? Nola berrartzen da testuan aurretik aipatutako elementua?

Esan bezala, ikasleen lana sekuenziatzeko sekuentzia didaktikoa deritzan tresna aukeratu dugu (Dolz 1992). Hona hemen tresna honen inguruko zenbait informazio:

Lehen Hezkuntza programatzeko, sekuentzia didaktikoak 6 urrats ditu:

1.- Azken-xedea zehaztu: urrats honetan ikasleei jakinaraziko zaie hizkuntzarekin egin beharko duten iharduera, hau da, zein izango den azken-xedea. Azken iharduera honek esanahitasuna emango dio irakasleak sekuentzia bitartean egingo dituen ekintza guztiei. Azken-xede honen helburua irakaslearen produkzioa (ahozkoa zein idatzizkoa) hobetzea izango da. Berraz negoziagarria da irakasleekin. Adibidez: 5. mailako "Euskal Herria ezagutzen" ikastunitatean, irakle bakoitzak aukeratu du, batetik, aztertuko duen Euskal Herriko esparrua; eta, bestetik, azken-xede modura burutuko duen gidaren formatua.

2.- Irakasleak dakitena kanporatu eta ebaluatu: hizkuntza eta ingurunea elkarrekin programatzen ditugula kontuan izanik, bi alderdi hauei buruz dakiena kanporatzen lagunduki zaio irakleari. Ingurunearen ezagutzari dagokionez, hau da, aipagaiari, (energia dela, Osasuna dela, herriaren ezagutza dela,...) eta komunikazio egoerari dagokionez (testu zientifikoa, gida, hitzaldia,...). Hau era askotara egiten da: aurretestua erabiliz, galderak eginez, mapa kontzeptualak osatuz,... Irakasleak dakitena jakin ondoren, irakasleak bere ikasleen ezagupenetara egokituko du sekuentzia.

3.- Ereduak aztertu: urrats honetan azken-xedea arrakastaz bete ahal izateko prestatuko da ikaslea. Hemen burutuko ditu bai aprendizai zientifikoari lotutako iharduerak bai ezinbesteko aprendizai linguistikoak eta bai aprendizai linguistiko konpatibleak. Har dezagun animalien gaia, bertako aprendizai zientifikoak esaten hasita, hona hemen batzuk: animalien behaketa, animalien azterketa konparatiboa (analogiak eta desberdintasunak ezaugarri fisikoetan, elikaduran, ugalketan,...); aprendizai linguistikoei dagokionez hona hemen batzuk: igorlearen rola bere egin (gaian aditua), testuaren antolaketa, lexikoa testu motari egokitu, testua berbegiratu eta zuzendu kontrol zerrendaren arabera...; aprendizai linguistiko konpatibleen artean hona hemen batzuk: ulermen estrategiak, kualitate fisikoak adierazten dituzten nozio orokorrak,...).

Beraz, ereduak alderdi desberdinetatik aztertzen dira: aipagaiari dagokionez (ulermen estrategiak garatu, informazioa jaso), komunikazio egoerari dagokionez (igorlearen ezaugarriak, hartzailea kontutan izan, helburua,...), testu antolaketari dagokionez (testuak dituen atalak, zein ordenatan dauden,...), testuratze lanak (antolatzaileak, kohesio estrategiak), unitate linguistikoak,...

4.- Testua ekoiztu kontrol zerrendaren arabera: urrats honetan testuak ekoiztuko ditu ikasleak, eredueta aztertutako alderdiak kontuan izanik. Lan hau errazteko asmoz ikasleari kontrol zerrenda deritzan tresna ematen zaio. Tresna honetan jasotzen dira sekuentzian zehar ikasitako zenbait eduki (komunikazio egoerari dagozkionak, testualak, eta abar). Aipatu tresnak hainbat abantaila ditu:

- Bertan zehazten du irakasleak ikasleari zer eskatuko dion
- Agertutako edukiak egokitu egin daitezke ikasle bakoitzaren beharretara. Beraz, ikaslearen arteko aniztasuna du kontuan.
- Ikaslearen autoebaluaketarako tresna da.

5.- Ikaslearen produkzioaren ebaluaketa eta zuzenketa kontrol zerrendaren arabera: urrats honetan ikasleak beste ikasleen eta irakaslearen iritziaz baliatuz bere testua zuzendu, ebaluatu eta berridatziko du.

6.- Azken-xedea burutu: zuzendutako testuei itxura egokia ematen zaie (txostenarena, hitzaldiarena, autobiografiarena, tresna baten funtzionamendurako esku liburuarena,...)

Bukatzeko, ondoren laburtzen ditugu iharduerak aukeratzeko kontuan izan ditugun oinarriak garrantzitsuenak:

- ^º Hizkuntz-iharduera anitzak eta ondorioz diskurtso ugarien lanketa ziurtatuko duten iharduerak.
- ^º Lau trebetasunen garapena ziurtatuko dituzten iharduerak.
- ^º Prozeduren egokitasunaren ebaluaketa ahalbideratuko duten eginkizunak.
- ^º Gaitasun komunikatiboaren alderdi guztien lanketa ziurtatuko duten eginkizunak.
- ^º Ezagutza eta komunikazioa elkarrekin gauzatzea ziurtatuko duten eginkizunak

IRAKASLEAK

1. PAUSOA

- . Gaia eta azken-xedea aurkeztu dituzte:
 - . Gaia: Animaliak (ornodunak).
 - . Azken-xedea: Animalien alburua bat egitea, eskolako liburutegian uzteko, kontsulta liburu bezela erabiltzeko.
- . Azken-xedea burutzeko, ikasi behar dituzten edukiak eta erabiliko dituzten zenbait iharduera azaltzen die, (animalien sailkapenak egiten, datuak ateratzen, ereduak aztertzen...)

2. PAUSOA

- . Ikasleen aurrezagupenak kanporatzen ditu. Horretarako ezagutzen dituzten animalien izenak arbelean idaztea proposatzen du.
- . Arbelean idatzita dauden animaliak sailkatzea proposatzen du. Irizpide ezberdinak kontutan izanik.

3. PAUSOA

- . Aurrezagupenak ziurtatzeko eta osatzeko informazio bilaketaren beharra planteatzen du.
- . Informazio bilaketa bideratzen du.
- . Eskema bat banatzen du.
- . Animalien sailkapen konbentzionala azaltzen du (ugaztun, narrakzi...) eta honen ezaugarriak aztertzea proposatzen du.

IKASLEAK

- . Informazioa jasotzen du:
 - . Azken-xedea zein den.
 - . Ikasi behar duena.
 - . Jarraituko diren pausoak.

- . Bururatzen zaizkien animalien izenak esaten dute eta arbelean idazten dute.
- . Sailkapen ezberdinak egiten dituzte (taldeka) eta adierazten dute zeren arabera sailkatu dituzten. (Taldea txikiak - talde osoari).

- . Testu liburuak, entziklopediak... kontsultatuz informazioa jasotzen dute.
- . Jasotako informazioa koadernoan idazten dute.
- . Eskeman azaltzen diren ezaugarriak erlazionatuz, animalia ornodun, talde ezberdinen izenak aurkitzen ditu (sailkapen konbentzionala).

HIZKUNTZ EDUKIAK

- . Komunikazio egoera aztertu.
 - . **Igorleak** - eurak - informazioa dutenak.
 - . **Hartzaileak** - eskolako beste haur batzuk, informazioa bila joaten direnak.
 - . **Helburua** - Beste ikasleentzat animaliei buruz informazioa idaztea, alburua bat osatuz.

- . Hiztegia animalien izenak.
- . Animaliak sailkatzeko era ezberdinak aurkitu. Ezaugarri amankomunak definitu.

- . Informazioa eskuratzeko liburuak eta iturri ezberdinak identifikatu.
- . Informazioa idatzi.
- . Hiztegi zientifikoa: narrakzi, hegazti...
- . Izen generikoak.

HIZKUNTZ EDUKIAK

- . Taularen erabilira
- . Datuen identifikazioa.
- . Datuen sailkapena.

- . Eskemaren azterketa (diselnua...).
- . Testuaren izenburuak eta azpi-izenburuak.
- . Testuaren banaketa ahapaldien bidez.
- . Testuaren azpi-izenburuen ierarkizazioa (zein azpi-izenburu, zein baino lehen eta zergaitik.

- . Informazioa jasotzeko liburu mota ezberdinak identifikatu.
- . Beharrezkoa duen informazioa identifikatu (azpimarratuz, eskemaren azpi-izenburuak erlazionatuz...).
- . Informazioa idatzi.

IKASLEAK

- . Testuak irakurten ditu.
- . Taulak eskatzen duen informazioa identifikatzen du testuan (azpimarratuz).
- . Azpimarratutako informazioa taulara pasatzen du, datuak sailkatuz.

- . Eskema aztertzen du eta informazioa testuraten du eskemaren ordena jarraituz.
- . Ikasleak irakaslearen laguntzaz testua zuzenduko du.

- . Ikasle bakoitzak animalia bat aukeratzen du eta talde ezberdinak osatzen dute, animalien sailkapena kontuan izanik.
- . Bere animaliarri buruzko informazioa bilatzen du. Behar duen informazioa identifikatzen du eta aurrez erabilitako eskeman idazten du.

IRAKASLEAK

4. PAUSOA

- . Animalia batzuk aukeratzen ditu eta talde haundian aztertea proposatzen du:
 - . datuak identifikatzeko
 - . datuak sailkatzeko
 - . datuak ierarkizatzeke.
- . Testu eta taulak banatzen ditu.

5. PAUSOA

- . Animalia bati buruzko informazioa banatzen du eskema bat erabiliz.
- . Ekoiztutako testua ebaluatzen du.

6. PAUSOA

- . Ikasle bakoitzak, animalia bat aukera dezala proposatzen du (komeni da landu diren talde guztietatik egotea).
- . Informazio jasoketa proposatzen du eta bideratzen du.

IRAKASLEAK**7. PAUSOA**

- . Hiztegia kontsultatzea planteatzen du animalia bakoitzaren definizioa aurkitzeko.
- . Hiztegiaren erabilira azaltzen du (Alfabetoa, arauak...).
- . Definizio batzuk ozenki irakurtzea proposatzen du.

- . Hiztegiaren erabilera.
- . Definizio baten egitura (izen generikoak, ordena...).
- * (Atal hau gordetzen du azken-xedea burutzeko).

IKASLEAK

- . Hiztegia kontsultatzea planteatzen du animalia bakoitzaren definizioa aurkitzeko.
- . Hiztegiaren erabilira azaltzen du (Alfabetoa, arauak...).
- . Definizio batzuk ozenki irakurtzea proposatzen du.

- . Hiztegiaren erabilera.
- . Definizio baten egitura (izen generikoak, ordena...).
- * (Atal hau gordetzen du azken-xedea burutzeko).

HIZKUNTZ EDUKIAK

- . Hiztegiaren erabilera.
- . Definizio baten egitura (izen generikoak, ordena...).
- * (Atal hau gordetzen du azken-xedea burutzeko).

- . Testuaren antolaketa (deskribapena).
- . Hiztegi zientifikoa.
- . Adjektiboak.
- . Kohesioa estrategiak
 - ordezkapenak
 - elipsea
 - anaforak
- * (Atal hau gordetzen du azken-xedea burutzeko).

IRAKASLEAK**9. PAUSOA**

- . Eskemaren 3. atala (bizimodua) ordenean eta zehazturik idaztea proposatzen du.
- . Kontrol zerrenda azaltzen du.
- . Lehendabiziko zirriborroa ikaslearekin batera eta kontrol zerrendaren arabera zuzentzen du.

10. PAUSOA

- . Atalka-atalka idatzitako testuak, testu bakar batean integratzea planteatzen du.
- * Antolaketa espaziala
 - Izenburu, azpi-izenburu.
 - Ahapaldiak.
 - Marrazki-argazki.
 - Foto-oinak.
- 10. PAUSOA - JARRAIPENA**
 - . Aspektu guzti hauek, kontrol-zerrenda batetan zehaztuko ditu, ikasleekin batera tratatzeko (Azken-xedearen maketazioa).
 - . Denon lanak bilduko ditu, albuma ixura duen txosten bat osatzeko (Azken-xedea gogorarazten du).

IKASLEAK

- Kontrol zerrenda aztertzen du eta dituen zalantzak azaltzen ditu.
- . Atal honetak hiru azpi-izenburuak aztertzen ditu (Ugalketa, elikadura eta arnasketa).
- . Azpi-izenburu bakoitzaren informazioa testuratzeko adibideak aztertzen ditu.
- . Jasotako informazioaz eta kontrol zerrenda jarraituz testua ekoizten du.
- . Zirriborroan zuzenketak egiten ditu.
- . Berridazten du eta ekoiztutako testua azken-xedea osatzeko gordetzen du.

- . Azken ekoizpenak maketatzen ditu, kontrol zerrendaren arabera.
- 1) Definizioa
- 2) Deskribapena.
- 3) Bizimodua:
 - Ugalketa.
 - Elikadura.
 - Arnasketa.
- . Bilduma osatuta gero, liburutegiko arduradunari eskeintzen diote.

HIZKUNTZ EDUKIAK

- . Atal honen antolaketa.
- . Azpi-izenburuaren ordena.
- . Marka eta baliabide ez-linguistikoak (azpi-izenburuak, aha-paldiak, marrazkiak, foto-oinak...).
- . Hiztegi zientifikoa (haragijalea, orojalea, arra-emea,...).
- . Kohesio estrategiak.
- . Informazioaren zehaztasuna.
- . Testuaren moldaketa:
 - Igorleak: informazioa dutenak.
 - Hartzaileak: beste ikasleak.
 - Helburua: Liburutegira eramatea kontsulta bezela erabili dezaten.
- . Irakurri behar duenari irakurketa erraztea eta gogoa erakartzea.
 - antolaketa argia.
 - hizki txukuna.
 - marrazkiak - foto - oinak.

BIBLIOGRAFIA:

- ARNAU J., COMET C., SERRA J.M., VILA I. (1992), La educación bilingüe, ICE/ Horsori, Barcelona.
- ARNAU J. (1994), Perspectivas del aprendiz en la educación trilingüe: procesos y factores de adquisición, Durangoko PAT.a
- BILBATUA M. (1994), Irakurketa-idazketa irakaskuntza elebidunetan, Durangoko PAT.a
- BILBATUA M. (1993), Elaboración de un programa para la enseñanza del euskara en los modelos de inmersión; justificación de las decisiones in Siguan M., Enseñanza en dos lenguas, ICE/HORSORI, Barcelona.
- BILBATUA M. eta beste (1994), Murgiltze eredua Deba Bailaran, Eskoriatza.
- BRONCKART, J.P. eta beste (1985), Le fonctionnement des discours, Paris, Delachaux & Niestlé.
- BRONCKART, J.P. (1992), Perspectivas y límites de una diversificación de la enseñanza de la lengua materna, in Idiazabal I.. Pedagogia del texto, Labayru, Bilbo.
- DOLZ J. (1992), Dos concepciones de secuencia didáctica aplicadas a la redacción, in Idiazabal I, Pedagogia del texto, Labayru, Bilbo.
- DOLZ J., PASQUIER A., BRONCKART J.P.(1993), L'adquisiton des discours: Emergence d'une competence ou apprentissage de capacités langagières diverses?, Etudes de Linguistique Appliquée, October-Décembre (23-37).
- GARCIA-DEBANC C. (1990), L'élève et la production d'écrits, Centre d'Analyse de l'Université de Metz.
- LAPLANTE B. (1993), Strategies pédagogiques et enseignement des sciences en immersion français: Le cas d'une enseignement, The Canadian Modern Language Review, 49,3 (567-588)
- SAINZ M. eta beste (1993), Euskara eta Ingurunearen ezagutza uztartzen dituzten material curricularrak. DLHko3.eta 4. mailak. Murgiltze mintegia. Eskoriatza.
- SAINZ M. eta beste (1994), Euskara eta Ingurunearen ezagutza uztartzen dituzten material curricularrak. DLHko 5. maila. Murgiltze mintegia. Eskoriatza.
- SAINZ M. eta beste (1995), Euskara eta Ingurunearen ezagutza uztartzen dituzten material curricularrak. DLHko 6. maila. Murgiltze mintegia. Eskoriatza.
- SIERRA J.(1994), Murgiltze programaren egoeraz eta izaeraz, Durangoko PAT.a.
- SNOW M., MET M., GENESSE F. (1989), A conceptual Framework for the Integration of Language and Content in Second/Foreing Language Instruction, Tesol Quarterly vol.23,n.2 (201-217)